

IKASTETXEAK EUSKARALDIAN

Batxilergoko ikasleek Euskaraldian parte har dezaten zenbait proposamen



Hainbat ikastetxeetatik eskatu dizkiguzue aholkuak eta proposamenak Euskaraldiaren inguruan. Ondoko orrialde hauetan zenbait proposamen aurkezten dizkizuegu. Proposamen batzuk eta kontuan hartzeko aholku batzuk dira, seguruenik hainbat eskola eta institututan dagoeneko zuen bidea garatzen ariko zarete eta ziur planteamendu onak izango direla. Ebetetik ekarpen bat egiten ahalegindu gara interesa eduki dezaketenek kontuan hartu edo erabili ahal izateko.

1-Zer hartu kontuan?

Euskaraldia 16 urtetik gorakoentzat ekimena da. Ariketa sozial horren helburua helduen hizkuntza-ohituretan eragitea da, eta ezaugarri guztiak horren arabera landu dira.

Batxilergoek Euskal Herri osorako antolatu den ekimenean parte hartu ahal izango dute.

Horretan parte hartzera gonbidatzea benetan interesgarria da institutuen ikuspegitik. Euskal Herrian azken hamarkadetan sortu den ekimen berezietakoa izango da eta gainera hedapen oso handia izango duena. Ondorioz:

- Ikasleekin hizkuntza-ohiturei buruz hitz egiteko eta hizkuntza-ohituren inguruan kontzientzia hartzeko aukera ona da.
- Hainbat eta hainbat herritan Ahobiziak eta Belarriprestak kalean oso nabarmen ikusiko dira. Hizkuntza-ohiturei dagokionez ikasleek inoiz izan dituzten baino erreferente eta eredu gehiago izango dituzte inguruan.

Ebetetik honako proposamena egiten dizuegu:

- Landu ikasleekin Euskaraldia.
- Gonbidatu Batxilergoak parte hartzera.
- Ahobizien aukera sustatu, baina batez ere Belarriprestaren rolari garrantzia da. Ahobizi izateko interesik ez duten horiekin landu behar da Belarriprest izateko motibazioa. Hori lortzea aurrera pauso handia izan daiteke hainbat institututan.

2-Batxilergoko instituentzat proposamenak

- 1.- Ikasleekin sentsibilizazio saioak Euskaraldiaren aurretik eta ondoren
 - Lehen saioa. Azaroan. *3 orrialdea*
 - Bigarren saioa. Azaroan. *7 orrialdea*
 - Hirugarren saioa. Abenduan. *13 orrialdea*.
- 2.- Ikasleen Euskara Batzordea, Prestaketa saioak eta Euskaraldiari jarraipena egitea

1.- Batxilergoko ikasleekin sentsibilizazio saioak Euskaraldiaren aurretik eta ondoren

Aurkezpena	<p>Euskaraldia aukera ona izango da ikasleekin euskarari buruz eta hizkuntza-ohiturei buruz hitz egiteko. Beraien inguruan ikusiko dute guraso edo gertuko enaldetik, karteletan, ekitaldietan, telebistan eta abar.</p> <p>Batxilergokoek, gainera, parte har dezakete Ahobizi eta Belarriprest moduan. Hori baliatuz, ikasleekin hiru sentsibilizazio saio egiteko proposamena aurkezten dizuegu.</p>
------------	---

Lehenengo saioa (azaroan)	<ul style="list-style-type: none"> - Euskarari buruz baino eleaniztasunari buruz hasi nahi dugu hizketan. -Zenbat hizkuntza dakizkizue edo ari zarete ikasten? Arbelean euskara, gaztelania eta ingelesa idatziko ditugu. Zuetako bateren batek badauki besteren bat? Aipatzen dituztenak idatziko ditugu. Institutuko ikasleen artean beste hizkuntza batzuk ere badaude? Zeintzuk datozkizue burura? Horiek ere idatzi egingo ditugu. - Gutxienez 10 hizkuntzetako zerrenda bat egitea lortu beharko genuke. - Taldeka jarriko ditugu. 4 edo 5eko taldeak. Galdera hauei erantzun behar diete: Hizkuntza horiek guztiak dakizkien pertsona bat balego, horrek zein aukera edo abantaila eskainiko lizkioke? Hizkuntza horiek guztiak jakiteak zer desabantaila ekarriko lizkioke? Bi minututan beraien artean hitz egingo dute eta gero denon artean laburtuko dugu. -Ondorioak: eleanitzak izateak abantaila asko ditu. Gu guztiok gutxienez hiru hizkuntza ikasten ari gara: euskara, gaztelania eta ingelesa. Hori beti izango da positiboa.
---------------------------	--

- Gu guztiok gutxienez euskaradunak, gaztelaniadunak eta ingelesdunak gara. Baina zein ezaugarri ematen dizkigu horrek?
- “Zer da ondoko gauza bakoitza zure kulturarentzat?” fitxa banatuko diegu. Talde bakoitzari herrialde bat emango diogu eta herrialde horren ikuspegitik erantzun behar dute (Alemania, Maroko, Argentina...). Minutu bat edo bi izango dituzte erantzuteko.
- Ondoren, dinamizatzaileak banan bana fitxa horretako galderak irakurriko ditu eta talde guztietakoek erantzungo dute: gehienak baiezkoak izango dira, zalantza bat egon daiteke (ez du axola) eta ezezko batzuk ere bai.
- Herrialde eta arlo oso ezberdinak hartuta, guztiok elementu komun asko ditugula ikusten dugu. Zerrenda luzatu ere egin daiteke. Zein elementu gehiago bururatzen zaizkie hainbat herrialderentzat komunak direnak? Taldeka zerrenda egingo dute eta denon artean aipatuko dugu (arropa markak, janari kateak, zinema...)
- Elementu komunak asko eta anitzak dira. Baina, berdina al da hemengoak izatea, Hego Afrikarra izatea, Andaluziarra izatea edo Alemaniarra izatea? Ba al daude bereizten gaituzten elementuak? Zeintzuk? Taldeka zerrenda egingo dute eta gero denon artean osatuko dugu.
- Euskara agertuko da. Beste elementu batzuk ere bai: gastronomia (zer?), folklorea, dantza... Zenbat eta zehatzagoak izan aipamenak, hobe.
- Hizkuntza alde batera utzita, beste elementuak hartzen baditugu: zenbaterainoko pisua dute gure eguneroko bizitzan? Gehienok beneten bizi al ditugu?
- Ondorioak: elementu komunak gehiago dira eta gure eguneroko bizitzan pisu handiagoa dute gainera. Bereizten gaituen elementu nagusia euskara da. Zerbait euskaraz egiten dugunean euskaradun bihurtzen dugu. Berdina da musika, kirola edo zer den.
- Euskara jakiteak eta erabiltzeak ez gaitu hobeak edo txarragoak egiten, baina ezaugarri batzuk ematen dizkigu: Euskal Herritar izateko modu berezi eta aberatsa da.
- Eleanitza izatea beti izango da positiboa. Euskaradunak izateak munduan kokatzeko eta Euskal Herritar izateko modu bat ematen digu.

- Gaztelaniadun, ingelesdun eta euskaradun garen neurrian, batean edo bestean aritzea aukeratu dezakegu.
- Benetako aukera bat al da? Beti aukeratu al dezakegu? Ba al dira taldean euskara gehiago erabili nahi luketenak egoera edo harreman batzuetan? Noizbait gertatu al zaie euskara gehiago erabili nahi izan eta zaila egitea edo ezinezkoa? Denoi gertatu izan al zaie? Edo batzuei soilik?
- Taldeka galdera horri erantzun beharko diote. Garbi azaldu behar zaie ez dugula inoren hizkuntza-ohiturarik epaitu nahi. Soilik "aukera" izatearen inguruan hausnartu nahi dugula.
- Taldeen aipatuko ditugu taldetxo bakoitzean ateratakoak.
- Ondorioa: hainbatek euskara gehiago erabili nahi lukete egoera eta harreman gehiagotan baina zailtasunak dituzte. Beste hainbatek ez du horretarako interesik.
- Hurrengo saio batean horren inguruan hitz egiten jarraituko dugula esango diegu.

Zer da ondoko gauza bakoitza zure kulturarentzat?

Zuek _____ herrialdekoak zarete.

Saiatu zaitetze leku hartan kokatzen eta hangoak bazinete bezala erantzuten. Zalantzak izan ditzakezue, baina daukazuen erreferentzien arabera erantzun.

Parte hartzen al duzue olinpiadetan?	Bai	Ez
Zuen kirolen artean futbola ere ba al dago?		
Zuen herrialdeko komunikabideek egin al zioten jarraipenik munduko futbol txapelketari?		
Lady Gaga abeslaria ezagutzen al duzue?		
Zuen herrialdeko telebistetan botatzen al dituzte Lady Gagaren bideoak?		
Mozart musikaria nor den ba al dakizue?		
Musika klasikoko kontzerturik izaten al da zuen herrialdean?		
Batukada edo antzeko perkusio talderik ba al da zuen herrialdean?		
Zuen herrialdeko telebistetan izaten al dira Talent Showak?		
You tube bideoak ikusten al dituzue?		
Sare sozialak erabiltzen al dituzue?		
Ferrari kotxe marka ezagutzen al duzue?		

<p>Bigarren saioa (azaroan)</p>	<p>-Euskararen bilakaerari buruz hitz egin nahi dugu. Zehazki euskaradunon ezaugarriak nolakoak diren ikusi nahi ditugu.</p> <ul style="list-style-type: none"> - “Garai Berriak” izeneko ariketa emango diegu. - Taldeka ariketa beteko dute eta ondoren talde handian aipatuko dugu. - Punturen batean zalantza edo eztabaida sortzen bada, lotutako bideoen bat ere jar dezakegu. Baita zalantzarik sortzen ez bada ere deigarria den zerbait iruditzen bazaie. <p>-Ondoren lehen ondorioak aipatuko dizkiegu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Euskaradunon ezaugarriak irauli egin dira azken hamarkadetan - Institutu gehienetako gazteak bete betean sartzen gara ezaugarri berri horien barruan - Euskara bidegurutze batean dago: aldaketa horien guztiaren ondoren bilakaera ona eta azkarra izango da? (gero eta gehiago erabiltzea eta gero eta harreman gehiagotan) Edo bilakaera kalterako izango da? - Gu gara protagonista. Guk eragin dezakegu norabide batean zein bestean. <p>-Baina euskararen aldeko bilakaera positiboa izan dadin, euskararen erabilerak gora egin behar du.</p> <ul style="list-style-type: none"> -Horretarako, euskaraz gehiago egin nahi dutenek urratsak eman behar dituzte eta besteek gutxienez ez lukete oztoporik jarri beharko. - Baina aurreko saioan ikusi genuen hainbatek euskara gehiago erabili nahi luketela egoera eta harreman gehiagotan baina zailtasunak dituztela. Beste hainbatek ez du horretarako interesik. -Zeintzuk dira zailtasun horiek? Taldeka jarri eta erantzun egin behar dute. (Euskara gehiago erabiltzeko interesik ez dutenei ere gaia laguntzeko eskatuko diegu: jar daitezela besteen lekuan eta saiatu daitezela ideiak ematen). - Talde handiak ideiak aipatuko ditugu. Nahi badute adibide zehatzak ematen ere lagunduko diegu. - Ondorio hau eman dezakegu: euskararen erabileraren gaia aspaldiko kezka da. Hizkuntza ohiturak aldatzea edo euskararen erabilera indartzea ez da erraza hori nahi duten pertsona asko egonda ere. <p>-Eremu horretan kokatzen den ekimen berri bat sortu da: Euskaraldia.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Euskaraldiko aurkezpen bideoak jarriko dizkiegu: <ul style="list-style-type: none"> - Azalpen orokorra (https://vimeo.com/289248388) - Besteren bat (hainbat daude interneten) - Zuek ere parte har dezakezue 16 urtetik gorakoentzat delako. - Ahobiziei buruz hitz egingo dugu: <ul style="list-style-type: none"> - Ezaugarriak aipatu: euskara ulertzen duten guztiekin euskaraz egingo dutenak, baita besteak erdaraz eginda ere. Ulertzen badit elkarrizketa mistoa izan daiteke. - Parte hartzeari buruz galdetu dezakegu: Zeintzuk eman duzue izena dagoeneko Ahobizi moduan? Animatuta al zaudete? Erraz ikusten al duzue?
---------------------------------	---

- Ondoren, Belarriprestei buruz hitz egingo dugu:

- Ezaugarriak aipatu: besteak gonbidatzen ditu berari euskaraz egitera. Ez du berak euskaraz hasteko edo erantzuteko konpromisorik hartzen, behar bada egingo du edo ez. Baina nahi du besteek berari euskaraz egitea.

- Norbaitek eman al du izena Belarriprest moduan? Baiezkorik baldin badago: Animatuta al zaudete? Erraz ikusten al duzue? Zalantzarik izan duzue erabakitzerakoan?

-Belarriprestaren inguruko mezu bat eman:

- Mezua ematen bideoek ere lagundu dezakete. Adibidez:

<https://www.youtube.com/watch?v=OqM12EeCLi4&feature=youtu.be>

<https://www.youtube.com/watch?v=wSiIYATuxZ4&feature=youtu.be>

- Belarriprest izateko arrazoiak gutxienez bi izan daitezke

- Bat: euskaraz gehiago egin nahi nuke baina Ahobizi izatea gehiegizkoa ikusten dut. Ez dudala lortuko iruditzen zait dena delako arrazoiengatik. Beraz: nahi dut niri euskaraz egitea eta saiatuko naiz hainbat harreman euskaraz izaten edo euskaraz sortzen. Jarrera aktiboa izango dut.

- Bi: ez dut interes berezirik euskaraz gehiago egiteko. Baina ulertzen dut batzuk egin nahi dutela eta ez dela erraza egoera batzuetan gehiago erabiltzea. Hori erraztu nahi diet eta nirekin euskaraz egitera gonbidatu. Eroso sentitzen banaiz euskaraz egingo diet eta bestela erdaraz.

- Belarriprestaren figura klabea da. Zenbat eta Belarriprest gehiago eta orduan eta giro hobea eta lorpen handiagoak.

- Batzuk zalantzan baldin bazaudete, izena ematera gonbidatzen zaituztegu.

Saioaren ondorioak positiboak badira, Ahobizi eta Belarriprestak izena emateko kanpainatxo bat egin dezakete: kartelak jarri, gonbidapenak eskura eman, izen-ematea egiteko kutxa jarri...

Zein da erantzun zuzena?	
Euskarak hiztunak galdu ditu, izan dira euskaldun gehiago zeuden garaiak.	Euskara dakigunak inoiz baino gehiago gara.
Euskaldun elebakarrik ia ez dago haur txikiak kendu ezker. Gehien gehienok gutxienez elebidunak gara.	Euskaldun elebakarrak ohikoak dira gaur egun ere.
Euskaldun gehienok alfabetatuak gara.	Euskaldun gehienok ez gara alfabetatuak.
Euskaldun gehienon ama-hizkuntza euskara da.	Euskaldun gehienon ama hizkuntza gaztelania da.
Euskaldun gehienok kalean gaztelania asko erabiltzen den gunetan bizi gara.	Euskaldun gehienok gune euskaldun edo nahiko euskaldunetan bizi gara.
Euskaldun gehienok ez dugu euskalkirik.	Euskaldun gehienok euskalkiak erabiltzeko gai gara.
Ezagutza eta erabileraren arteko desoreka inoiz baino handiagoa da.	Inoiz baino gehiago erabiltzen da, eta desoreka inoiz baino txikiagoa da.
Euskara formalean aritzeko zailtasunak ditu gehiengoak.	Hizkera informalean eroso aritzeko zailtasunak ditu gehiengoak.
Euskararen kontrako jarrerak nagusi dira.	Euskararen aldeko jarrerak nagusi dira.

Zein da erantzun zuzena?	
Euskarak hiztunak galdu ditu, izan dira euskaldun gehiago zeuden garaiak.	Euskara dakigunak inoiz baino gehiago gara.
Euskaldun elebakarrik ia ez dago haur txikiak kendu ezkerok. Gehien gehienok gutxienez elebidunak gara.	Euskaldun elebakarrak ohikoak dira gaur egun ere.
Euskaldun gehienok alfabetatuak gara.	Euskaldun gehienok ez gara alfabetatuak.
Euskaldun gehienon ama-hizkuntza euskara da.	Euskaldun gehienon ama hizkuntza gaztelania da.
Euskaldun gehienok kalean gaztelania asko erabiltzen den gunetan bizi gara.	Euskaldun gehienok gune euskaldun edo nahiko euskaldunetan bizi gara.
Euskaldun gehienok ez dugu euskalkirik.	Euskaldun gehienok euskalkiak erabiltzeko gai gara.
Ezagutza eta erabileraren arteko desoreka inoiz baino handiagoa da.	Inoiz baino gehiago erabiltzen da, eta desoreka inoiz baino txikiagoa da.
Euskara formalean aritzeko zailtasunak ditu gehiengoak.	Hizkera informalean eroso aritzeko zailtasunak ditu gehiengoak.
Euskararen kontrako jarrerak nagusi dira.	Euskararen aldeko jarrerak nagusi dira.

Bideoaren izena	Lotura	Zein punturekin lotzen da?
2039an 1.200.000 euskaldun	http://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/tribuaren-berbak/bideoak/osoa/2153940/bideoa-2039an-euskaldunak-1200000-izan-gaitezke--euskara-2039/	Euskaldunak gero eta gehiago gara.
Etorkizuna eleanitza ikusten dute gazteek. Tribuaren Berbak.	http://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/tribuaren-berbak/bideoak/osoa/2154534/bideoa-etorkizuna-eleanitz-ikusten-dute-gazteek--euskara-2039/	Denok gutxienez elebidunak gara puntuarekin lotuta: euskaldun elebakarrak egotetik etorkizunean guztiak eleanitzak izatera.
Etorkinen esperientzia. Jon Maia. Tribuaren Berbak.	http://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/tribuaren-berbak/bideoak/osoa/3083166/bideoa-jon-maiaren-esperientzia-etorkinen-eme-gisa/	Ama-hizkuntzarekin lotuta. Familia erdaldunak baina seme-alaba euskaldunak.
Gasteizko euskararen egoera. Tribuaren berbak.	http://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/tribuaren-berbak/bideoak/osoa/2361816/bideoa-gasteizko-euskaldunen-propozioa--tribuaren-berbak/	
Euskarazko raparen bultzada.	http://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/tribuaren-berbak/bideoak/osoa/2690040/bideoa-euskal-raparen-bultzada-toki-erdaldunetan/	Euskaldun gehienak testuinguru erdaldunetan eta amai hizkuntza gaztelania.
Euskararen erabilera handitzeko eman beharreko urratsak	http://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/tribuaren-berbak/bideoak/osoa/2154498/bideoa-euskararen-erabilera-handitzeko-urratsak--euskara-2039/	Euskararen ezagutza eta erabileraren arteko desorekaren inguruan erabil daiteke.
Noiz batua eta noiz euskalkia? Tribuaren berbak	http://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/tribuaren-berbak/bideoak/osoa/2223216/bideoa-noiz-erabiltzen-dugu-euskara-batua-eta-noiz-euskalkia/	Euskalkiari buruz. Lehenengo euskalkia dutenak eta bat ez duena. Bigarrena, euskalkiak bereiztearen inguruko jolas

<p>Gai gara euskalkiak bereizteko?</p>	<p>http://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/tribuaren-berbak/bideoak/osoa/2223198/bideoa-gai-al-gara-euskalkiak-desberdintzeko/</p>	<p>bat.</p>
<p>Euskararen berreskurapenari begira. Garabide. Tribuaren berbak.</p>	<p>http://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/tribuaren-berbak/euskara-eredu/bideoak/osoa/2941156/bideoa-mexiko-guatemala-ekuator-euskararen-berreskurapenari-begira/</p>	<p>Azken mezuarekin lotuta: besteen eredu ere bagara, eta protagonistak gara hemen ere.</p>
<p>Galestarren eredu gara. Tribuaren berbak.</p>	<p>http://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/tribuaren-berbak/bideoak/osoa/3295728/bideoa-inaki-larranaga-galestarren-eredu-gara/</p>	

<p>Hirugarren saioa (abenduan)</p>	<p>Abenduko saioan ere Euskaraldiari buruz hitz egin nahi dugula esango diegu. Hasteko, datu nagusienak emango dizkiegu: zenbat herrik parte hartu duten, zenbat Ahobizi eta Belarriprest aritu diren Euskal Herri osoan eta gure herrian...</p> <p>Ondo legoke Euskaraldiko bi-hiru bideo jartzea: Interneten herrietan egindako gero eta bideo gehiago daude eta horietako batzuk laburrak eta umoretsuak dira.</p> <p>Ondoren, beraien bizipen eta sententzietan buruz galdetuko diegu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zeintzuk aritu dira Ahobizi moduan? Zeintzuk Belarriprest moduan? - Zein sententzia izan dituzte? Gustura aritu dira? Lortu dute Ahobiziek? Belarriprestek ohikoa baino euskara gehiago erabili dute? Zeintzuk izan dira zailtasunak? <p>Interesgarria izan daiteke hiru talde egitea:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Alde batetik Ahobiziak, bestetik Belarriprestak eta azkenik parte hartu ez dutenak. - Talde bakoitzak bere sententzia eta bizipenez hitz egingo dugu. <p>Tarte baten ondoren hiru taldeak nahastuko ditugu, eta hiru talde berri osatu. Elkarrekin hitz egingo dute talde bakoitzean atera denari buruz.</p> <p>Azkenik, talde handian ondorio nagusiak bilduko ditugu.</p> <p>Amaitzeko, Euskararen egoerari buruzko mezu bat emango diegu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gero eta jende gehiagok daki euskara eta gero eta leku gehiagotan erabiltzen da. - Hainbat harreman lehendik erdaraz dira eta jende askok aldatu nahi luke euskaraz izateko. Hori ez da erraza, ohiturak aldatzea ez da erraza. - Horretarako dira Euskaraldia moduko ekimenak. Aldatu nahi dutenei bidea errazteko. - Zuek Euskaraldia biztu duzue eta honen guztiaren inguruan eta hitz egin dugu. - Aurrerantzean egindakoa gogoan izatera eta bide honetatik jarraitzera gonbidatzen zaituztegu. Ekimen gehiago ere sortuko dira edo guk gureak ere egin ditzakegu. Baina egunerokoan eman beharko genituzke pausoak.
------------------------------------	--

2.- Ikasleen Euskara Batzordeak, prestaketa saioak eta Euskaraldiari jarraipena egitea	
Aurkezpena	Sentsibilizazio saioez gain, Euskaraldira begira beste arlo batzuk ere garatu daitezke institutuan.
Ikasleen Euskara Batzordea	<p>Ikasleen Euskara Batzordeak lan handia egin dezake Euskaraldian zehar:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Girotze lana egin: kartelak jarri, bideoak egin watsapez zabaltzeko, institutuan jarduerak antolatu, eta abar. <p>Euskaraldiak presentzia handia izan dezan lortu dezakete. Beraz, 11 egun horietan zehar erraztasunak eman gauzak antolatu eta dinamizatu ditzaten.</p> <p>Gainera, kontuan izan eragile izateak eragin handia duela norberaren euskararekiko jarreretan eta jokabideetan.</p>
	<p>Hainbat institututan abian dituzue Ikasleen Euskara Batzordeak. Kasu horietan dagoeneko ariko zarete Euskaraldira begira lanean.</p> <p>Ikasleen Euskara Batzorderik abian ez duzuen institutuetan aukera oso ona izan daiteke bat sortzeko: Euskaraldira begira lan egin nahi duen talde bat sortu nahi dela aurkeztu, nahi dutenek izena ematera gonbidatu, eta lanean jarri.</p> <p>Hiru mailatan behintzat lan egin dezakete:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Parte hartzea sustatzen: ikasle eta irakasleek Ahobizi edo Belarriprest moduan izena ematera begira. - Institutua girotzen: ekitaldiak, kartelak eta abar. - Herri mailako ekitaldietan parte hartzen eta gazteen presentzia eta eragina nabarmen jartzen herri mailan ere.
Prestaketa saioak	<p>Zuen institutuan hainbat ikasleek Ahobizi edo Belarriprest moduan aritzeko izena ematen badute, oso interesgarria da prestaketa saioak edo entrenamenduak egiteko aukera kontuan izatea. Bereziki Ahobiziek. Hau da: hainbat eta hainbat institututan Batxilergoko ikasleentzat ez da batere erraza Ahobizi izatea. Hainbat zailtasun izango dituzte. Aurretik horiek zeintzuk diren ikusten badute eta horietan nola jokatu ikusten laguntzeak ekimenak arrakasta izan dezan lagunduko du.</p> <p>Nork eta nola antolatu prestaketa saioak?</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ikasleen Euskara Batzordearen ardura izan daiteke egokiena. Aukera hori ez baduzue, irakasleok egin dezakezue. - Atsedean tartek edo klaseak amaitu ondoreneko tartek izan daitezke egokienak. - Ez da denbora gehiegi behar, ezta saio asko ere. Bi edo hiru

	<p>nahikoak izan daitezke.</p> <p>Zer landu preskateka saioetan?</p> <p>1-Zailtasunak ikustea: Ahobizi izateak zer esan nahi duen ikusi behar dute. Horri begira beraiekin hitz egin daiteke zailtasun horien inguruan: zer iruditzen zaie? Non edo norekin izango dituzte zailtasunak? Zein egoeretan? Non eta norekin ez? Adibidez, ondorengo orrian, hori ikusten lagundu dezakeen ariketa bat txertatu dugu.</p> <p>2-Zailtasunen aurrean jokatzeko moduak frogatzea: euskara mantentzeko zailtasunak ikusten ditugunean nola jokatu? Deseroso gaudenean nola jokatu? Talde batean gaudenean eta gehienak erdaraz ari badira nola jokatu? Eta abar. Nahikoa izan daiteke beraiekin jarrera ona zein izan daitekeen adostea eta simulazio jolasak egitea (taldeko kideen artean rolak banatu eta horrela jokatzera gonbidatzea prestaketa saioetan).</p> <p>Belarriprestekin ere egin daiteke antzeko zerbait, batez ere beraien aldetik zein jarrera ikusi nahi den transmititzera begira. Hau da: Belarriprestak jarrera aktiboa izan dezakeela ikusaraztera begira.</p>
<p>Irakasleen bidez Euskaraldiari jarraipena egitea</p>	<p>Euskaraldira begira irakasleek sentsibilizazio saioak eta girotze lana egin ditzakezue. Baina horretaz gain Euskaraldiko 11 egunetan ekimenari jarraipena egiteko aukera ere baduzue.</p> <p>Euskaraldiko 11 egunetan zehar ikasleekin inguruan ikusten dutenaz hitz egin dezakegu eta mezu egoki batzuk eman ditzakegu. Kontuan izan beraietako hainbatek ekimenean izena emango dute, telebistan ikusiko dutela, kalean karteletan, ekitaldietan, herriko hainbat jende pin-arekin eta abar.</p> <p>Azken batean: beraietako hainbat eragile sentituko dira eta inoiz baino erreferente eta eredu gehiago izan ditzakete inguruan. Ekimena baliatu dezakegu horretaz konturatu daitezen eta errefortzu positiboak emateko. Irakasleen bidez ere egin dezakezue Euskaraldiaren jarraipena. Besteak beste:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bideoak bilatu eta klasean jarri (Euskaraldiaren inguruan bideo asko ari dira sortzen eta Interneten daude) - Egunero tartetxo batean Euskaraldiari buruz hitz egin edozein aitzakia hartuta: ikasleak pin-ekin dabiltzala, interneten bide bat aurkitu dugula, herrian ekitaldi bereziren bat dagoela... <p>Egoera horiek ikasleei errefortzu positiboak emateko baliatu: euskara asko erabiltzera animatu, zailtasunak badituzte horiek gainditzeko ideiak eman edo horretaz beraiekin hitz egin, eta abar.</p>

Ariketa: Ahobizi izatea erraza al da?

Bakoitzari txartel bat emango diogu tolestuta. Bakoitzak berea irakurri behar du baina besteei zer jartzen duen esan gabe.

Aretoan zehar ibiltzen hasi behar dute. Nahastu egin behar dute. Dinamizatzaileek, halako batean, binaka jartzeko eskatuko diete.

Hiru minutuz egon behar dute elkarrekin hizketan. Gai bat jarriko diegu. Hiru minutu horien ondoren berriz ibiltzen eta nahasten hasiko dira. Ondo nahastuta daudenean laukoteak osatzeko eskatuko diegu.

Beste lau minutuz hitz egin behar dute gai baten inguruan. Bakoitzak papertxoan duen modu horretara jokatu behar du.

Ondoren, talde handian elkartuko gara eta ondorioei buruz hitz egingo dugu:

- Zer moduz sentitu gara? Erraz bete dugu papera? Edozeinek eman dezake iritzia. Behar bada erdaraz egin behar zutenak ere ez dira eroso sentitu beti euskaraz egiten dutenekin erdaraz egin behar izan dutelako. Horri ez diogu garrantziari emango.
- Ahobizietan zentratuko gara. Erraza izan al da? Banakoekin edo taldean berdin al da? Zer sentitu dute?
- Denen artean hitz egitekoa: irudikatzen al dituzte horrelako egoerak? Erraza izango al da Ahobizi izatea?

Hizketarako gaia (komeni da gai batzuk zerrendatzea eta nahi duzuen aukeratu saioan bertan):

- Lehen saioan:
 - o Batek birziklatu egiten du eta besteak ez. Zergatik? Erraza edo zaila da? Bata bestea konbentzitzen saiatu.
 - o Saskibaloiara jokatzen ikasi nahi du batek. Besteak azaldu egin behar dio. Baina kosta egiten zaio ulertzea eta galderak maiz egin behar ditu.
 - o ...
- Bigarren saioan:
 - o Oporretara joan behar duzue. Bik nahiago duzue Mediterraneoko hondartza batera joan eta besteek Pirinioetara mendira.
 - o ...

<p>BETI EUSKARAZ EGINBEHAR DUZU. BESTEEK ERDARAZ EGITEN BADUTE ERE BAI.</p>	<p>EUSKARAZ HASI BEHAR DUZU. NORBAITEK ERDARAZ EGITEN BADU, ERDARAZ ERANTZUN, NORBAITEK EUSKARAZ EGITEN BADU, EUSKARAZ ERANTZUN.</p>	<p>BETI ERDARAZ EGIN BEHAR DUZU. BESTEEK EUSKARAZ EGITEN BADUTE ERE ZUK ERDARAZ JARRAITU.</p>
<p>BETI EUSKARAZ EGINBEHAR DUZU. BESTEEK ERDARAZ EGITEN BADUTE ERE BAI.</p>	<p>EUSKARAZ HASI BEHAR DUZU. NORBAITEK ERDARAZ EGITEN BADU, ERDARAZ ERANTZUN, NORBAITEK EUSKARAZ EGITEN BADU, EUSKARAZ ERANTZUN.</p>	<p>BETI ERDARAZ EGIN BEHAR DUZU. BESTEEK EUSKARAZ EGITEN BADUTE ERE ZUK ERDARAZ JARRAITU.</p>
<p>BETI EUSKARAZ EGINBEHAR DUZU. BESTEEK ERDARAZ EGITEN BADUTE ERE BAI.</p>	<p>EUSKARAZ HASI BEHAR DUZU. NORBAITEK ERDARAZ EGITEN BADU ERDARAZ ERANTZUN ETA ERDARAZ JARRAITU DENBORA GUZTIAN.</p>	<p>BETI ERDARAZ EGIN BEHAR DUZU. BESTEEK EUSKARAZ EGITEN BADUTE ERE ZUK ERDARAZ JARRAITU.</p>
<p>BETI EUSKARAZ EGINBEHAR DUZU. BESTEEK ERDARAZ EGITEN BADUTE ERE BAI.</p>	<p>EUSKARAZ HASI BEHAR DUZU. NORBAITEK ERDARAZ EGITEN BADU ERDARAZ ERANTZUN ETA ERDARAZ JARRAITU DENBORA GUZTIAN.</p>	<p>BETI ERDARAZ EGIN BEHAR DUZU. BESTEEK EUSKARAZ EGITEN BADUTE ERE ZUK ERDARAZ JARRAITU.</p>
<p>BETI EUSKARAZ EGINBEHAR DUZU. BESTEEK ERDARAZ EGITEN BADUTE ERE BAI.</p>	<p>EUSKARAZ HASI BEHAR DUZU. NORBAITEK ERDARAZ EGITEN BADU ERDARAZ ERANTZUN ETA ERDARAZ JARRAITU DENBORA GUZTIAN.</p>	<p>BETI ERDARAZ EGIN BEHAR DUZU. BESTEEK EUSKARAZ EGITEN BADUTE ERE ZUK ERDARAZ JARRAITU.</p>

<p>BETI EUSKARAZ EGINBEHAR DUZU. BESTEEK ERDARAZ EGITEN BADUTE ERE BAI.</p>	<p>EUSKARAZ HASI BEHAR DUZU. NORBAITEK ERDARAZ EGITEN BADU ERDARAZ ERANTZUN ETA ERDARAZ JARRAITU DENBORA GUZTIAN.</p>	<p>BETI ERDARAZ EGIN BEHAR DUZU. BESTEEK EUSKARAZ EGITEN BADUTE ERE ZUK ERDARAZ JARRAITU.</p>
<p>BETI EUSKARAZ EGINBEHAR DUZU. BESTEEK ERDARAZ EGITEN BADUTE ERE BAI.</p>	<p>EUSKARAZ HASI BEHAR DUZU. NORBAITEK ERDARAZ EGITEN BADU ERDARAZ ERANTZUN ETA ERDARAZ JARRAITU DENBORA GUZTIAN.</p>	<p>BETI ERDARAZ EGIN BEHAR DUZU. BESTEEK EUSKARAZ EGITEN BADUTE ERE ZUK ERDARAZ JARRAITU.</p>
<p>EUSKARAZ HASI BEHAR DUZU. NORBAITEK ERDARAZ EGITEN BADU, ERDARAZ ERANTZUN, NORBAITEK EUSKARAZ EGITEN BADU, EUSKARAZ ERANTZUN.</p>	<p>EUSKARAZ HASI BEHAR DUZU. NORBAITEK ERDARAZ EGITEN BADU ERDARAZ ERANTZUN ETA ERDARAZ JARRAITU DENBORA GUZTIAN.</p>	<p>BETI ERDARAZ EGIN BEHAR DUZU. BESTEEK EUSKARAZ EGITEN BADUTE ERE ZUK ERDARAZ JARRAITU.</p>
<p>EUSKARAZ HASI BEHAR DUZU. NORBAITEK ERDARAZ EGITEN BADU, ERDARAZ ERANTZUN, NORBAITEK EUSKARAZ EGITEN BADU, EUSKARAZ ERANTZUN.</p>	<p>EUSKARAZ HASI BEHAR DUZU. NORBAITEK ERDARAZ EGITEN BADU ERDARAZ ERANTZUN ETA ERDARAZ JARRAITU DENBORA GUZTIAN.</p>	<p>BETI ERDARAZ EGIN BEHAR DUZU. BESTEEK EUSKARAZ EGITEN BADUTE ERE ZUK ERDARAZ JARRAITU.</p>
<p>EUSKARAZ HASI BEHAR DUZU. NORBAITEK ERDARAZ EGITEN BADU, ERDARAZ ERANTZUN, NORBAITEK EUSKARAZ</p>	<p>EUSKARAZ HASI BEHAR DUZU. NORBAITEK ERDARAZ EGITEN BADU ERDARAZ ERANTZUN ETA ERDARAZ JARRAITU DENBORA GUZTIAN.</p>	<p>BETI ERDARAZ EGIN BEHAR DUZU. BESTEEK EUSKARAZ EGITEN BADUTE ERE ZUK ERDARAZ JARRAITU.</p>

<p>EGITEN BADU, EUSKARAZ ERANTZUN.</p>		
<p>EUSKARAZ HASI BEHAR DUZU. NORBAITEK ERDARAZ EGITEN BADU, ERDARAZ ERANTZUN, NORBAITEK EUSKARAZ EGITEN BADU, EUSKARAZ ERANTZUN.</p>	<p>EUSKARAZ HASI BEHAR DUZU. NORBAITEK ERDARAZ EGITEN BADU ERDARAZ ERANTZUN ETA ERDARAZ JARRAITU DENBORA GUZTIAN.</p>	<p>BETI ERDARAZ EGIN BEHAR DUZU. BESTEEK EUSKARAZ EGITEN BADUTE ERE ZUK ERDARAZ JARRAITU.</p>
<p>EUSKARAZ HASI BEHAR DUZU. NORBAITEK ERDARAZ EGITEN BADU, ERDARAZ ERANTZUN, NORBAITEK EUSKARAZ EGITEN BADU, EUSKARAZ ERANTZUN.</p>	<p>EUSKARAZ HASI BEHAR DUZU. NORBAITEK ERDARAZ EGITEN BADU ERDARAZ ERANTZUN ETA ERDARAZ JARRAITU DENBORA GUZTIAN.</p>	<p>BETI ERDARAZ EGIN BEHAR DUZU. BESTEEK EUSKARAZ EGITEN BADUTE ERE ZUK ERDARAZ JARRAITU.</p>